


Sargori?

Lurraren berotzea, karbono-emisioak, ozono-geruza... badirudi dena apur bat arrarotuta dagoela, batez ere zientziari buruzko jakintza erlatiboki txikia duen jende gaztearentzat. Baina aukera ematen badiezu karbono(IV) oxidoa sortzeko —eta ikusteko kontuan hartzeko moduko indarra dela—, beharbada karbonoaren oreka apur bat serioago hartzen has litezke. Gainera, gure inguruko indar ikusezinak beti dira apur bat ikaragarriak. Egizu zuk zeuk balantza bat etxean, eta egiaztatu karbono(IV) ikusezina aire era berean ikusezina baino astunagoa dela.


BEHARKO DUZU

- Plastikozko 2 poltsa garden (izozkailurako poltsen neurrikoak)
- Zinta itsasgarria
- 30 cm-ko erregela bat
- 3 koilaratxo sodio bikarbonato
- Txintxeta bat
- 100 ml ozipin
- Edalontzi bat




METODOA

1. Finkatu txintxeta azal batean (gora begira), mahaiaren ertz baten ondoan.
2. Itsatsi plastikozko poltsak erregelaren mutur banatan (utzi zabalik gora begira dagoen zati on bat).
3. Kontu handiz, orekatu erregela txintxetaren gainean, etxean egindako balantza osatzeko.
4. Nahastu ozipina eta sodio bikarbonatoa edalontzian.



5. Nahastea aparra ateratzen hasten denean, okertu edalontzia kontu handiz plastikozko poltsa ireki baten gainean. Ez isuri ez likidorik ez aparrik.
6. Edalontzi okertuaren azpiko poltsak behera egin beharko luke apurka, osagai berri ikusezinaren pisuaren eraginez.



ZIENTZIA-AITZAKIA

Zientzia-ikasle arretatsu bat laster ohartuko da ozpina eta sodio bikarbonatoa nahastea dela modurik onena –eta errazena– karbono(IV) oxidoa ekoizteko. Karbono(IV) oxidoa azidoaren (ozpinaren) eta basearen (sodio bikarbonatoaren) arteko erreakzioaren azpiproduktu bat da. Bestalde, karbono(IV) oxidoa airea baino astunagoa da. Horregatik isur daiteke, likidoa isuriko bagenu bezala, poltsa baten barrura, balantza okerraraziz.



KONTUZ!

Ozpina eta sodio bikarbonatoa nahasi ondoren, edalontzia kontu handiz okertu behar da. Balantza hauskor hori egiteko lana hartu ondoren, ez duzu nahi izango esperimntua zapuztu likidoa poltsa barrura isurita; kontua da poltsak gas ikusezinaren pisuagatik hondoratu behar duela!